

*Etxean Goxo* proiektua aurkezten dizuegu, etxez-etxeko sukaldaritza zerbitzua eskeintzen duena. Gure sukaldari taldeak, bezeroen etxeetara gerturatu, eta bertan sukaldatzen dute haiek eskatutakoaren arabera. Gure helburua jendeari bizitza errazagoa egitea da, baita ere menu goxoak euren etxeko goxotasun eta erosotasunean disfrutatzeko aukera ematea. Gure enpresa Vitoria-Gasteizen dago. Hori da gure erdi-gunea eta hornitze-zentroa, bertan izango bait ditugu beharrezko material eta lehengai guztiak. Bertan zabaltzeko indar eta esfortzu guztia egingo dugu. Ostean, Araban zehar eta inguruetara zabaltzeko aukera ere izango dugu. Etxean eskeinitako sukaldaritza pribatu zerbitzua eskeintzeaz gain, sukaldaritza ikastaroak eta pertsonalizatutako dietak eta aholkuak ere eskeintzen ditugu, guztia, bezeroen etxeetan.